



(2014ko maiatza)

## KOMUNIKABIDEEN AHALA, EZKUTUKO AGINTEA?

*Sarritan esaten jaku informazinoaren aroan gagozala, komunikazinoaren teknologiek munduan gertatzen danaren barri berehala emoten deuskuela eta ondo informatuta egoteko aukerea dogula. Baina, egia ete da hori? Jaubetzen ete gara komunikabideen bitartez kontsumitzen dogun ideologiaz? Informazinoaren autopistak deitutakoek mundu osora heltzea ahalbideratzen deuskue eta planetako biztanle guztien eskura dagozan tresna garrantzitsu dira. Baieztapen horri eusteko moduan ete gagoz, munduko biztanleriaren heren bik sekula telefono dei bat be egin ez dauanean? Interneteko zerbitzarien %90a Iparraldean dago.*

*Jasoten doguzan barriek mundua ulertzeko era baldintzatzen deuskun gure ikuspuntuan eragiten deuskue. Frantzisko Aita santuak haxe dino "Ebanjelioaren poza" burubide apostolikoan: "Ezin da onartu kalean dagoan edadetu bat hotzez hil dala barri ez izatea eta burtsan puntu biko beherakada gertatzea bai izatèa. Hori bazterketa da" (EG 53).*

*Herritar gehienek gizarte komunikabideetatik "kontsumitzen" daben gehiena ez da informazinoa (irratiko, telebistako albistegiak, prentsa...); batez be, 'bihotzaren' programazinoa eta aldizkariak, kirol emonaldiak eta prentsa, lehiaketak... dira kontsumo-gai nagusiak; horreexek itxuratzen dabe gehien errealdadearen irudia eta bizitza pertsonalean eta sozialean garrantzitsua danaren eta ez danaren "agenda". Gizarte komunikabideek ahal itzela dabe, alde batetik, "zer pentsatu behar dan" baldintzatzeko eta, bestetik eta batez be, "zeri buruz pentsatu behar dan" baldintzatzeko. Josep Ramonedaren berbetan, "komunikabideen ahala - ahal politikoa - ahal ekonomikoa triangeluak mekanismo erabat eraginkor lez funtzionatzen dau interesaten ez dana garrantzi bako, hutsal bihurtzeko debekatzeko premia barik".*

### Irakurketa eta alkarrizketarako gida

**1.** Ze komunikabide darabilt normalean: prentsa, telebista, irratia, gizarte sareak...? Zer bilatzen dot: informazinoa, jakintzak, aisialdia...? Zer bilatzen dau nire bizigiroko jenteak?

**2.** Azken egunetan, ze barrik izan dau oihartzun gehien komunikabideetan? Baztertuenen egoerea islatzen ete dabe? Zelan? Jasoten ete dabe "bestelako ekonomia baten, bestelako mundu baten" esperientziarik?

**3.** Doktrina Sozialetik hartutako testuetatik, zer nabarmenduko zeunke, zer gertatu jatzu deigarrien? Ze balorazino egin daikegu gizarte komunikabideen inguruan?

**4.** Ze jarrera hartu daikegu, ze jarduera garatu daikegu, bakarka, taldean, gizarte komunikabideak hobeto erabilteko, gizatasuna zabaltzeko gauza diran komunikabideak izateko?



## ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

### Inter Mirifica (IM)

*Gizarte Komunikabideei buruz. Vatikanoko II. Kontzilioa.  
Paulo VI.a.*

1963

**3.** Eliza katolikoak, Kristo Jaunak gizaki guztiak salbamenera eramateko sortua eta, beraz, Ebanjelioa iragartzeko premia bere gain duena izanik, uste du, bere egitekoan sartzen dela salbamen-mezua aldarrikatzea, baita gizarteko komunikabideen laguntzaz ere, eta hauen erabilera zuzena gizakiei irakastea. Elizak jatorrizko eskubidea du, bada, mota honetako edozein bitarteko erabili eta edukitzeko, kristau-hezierarako eta arimen salbamen-lanerako beharrezko edo baliagarri diren heinean. Eliz Artzainei dagokie fededunak eskolatzea eta gidatzea, hauek, bitarteko horien laguntzaz ere, beren salbamen eta santutasuna eta gizadi osoarena lor ditzaten.

Gainerakoan, laikoei dagokie batez ere bitarteko hauei giza arnasaz eta kristau-arnasaz bizia ematea, gizarteak horietan jarri dituen uste handiei eta Jainkoaren asmoei bete-betean erantzun diezaieten.

### Redemptoris Missio (RM)

*Entziklika Misiolari Aginduaren Baliotasun Iraunkorrari buruz.  
Joan Paulo II.a.*

1990

**37.** Aro modernoko lehenengo areopagoa komunikazioaren mundua da, gizadia bateratzen diharduana eta -hizkera arruntean esaten danez- «herrixka global» bihurtzen ari dana. Gizarte komunikabideek jadetsi daben egundoko garrantzia dala-eta, askorentzat tresna informatzaile eta hezitzaile nagusiak dira, tresna orientatzaile eta inspirazio-iturri bakarkako, familiako eta gizarteko jokabideetarako. Belaunaldi barriak, batez be, hedabide honek baldintzatutako munduan hazten ari dira. Beharbada ez jako behar dan beste jaramonik egin aeropago honi: normalean beste tresna batzuei emoten jake lehentasuna ebanjelioaren iragarpenerako eta kristinau heziketarako, gizarte komunikabideak gizabanakoen edo talde txikien esku izten diralarik, eta pastoral programazioan bakarrik bigarren maila batean agertuz.

### Aetatis Novae (AN)

*Gizarte Komunikabideei buruzko pastoral argibideak Communio et Progressio idazkiaren 20. urteurrenean.  
Gizarte Komunikabideetarako Pontifize Batzordea.*

1992

**37.** Ez da onargarria komunikazio-askatasunaren gauzatzea aberastasunaren, hezkuntzaren edo aginte politikoaren menpe egotea. Guztiok jagoku komunikaziorako eskubidea. Honek aparteko ahalegin nazional eta internazionalak eskatzen ditu; ez txiroei eta aberats ez diranei euren bakarkako eta gizarteko garapenerako behar daben informazioa eskuratzea ahalbideratzeko bakarrik, aitatutako honek be komunikabideen edukinen erabagian eta komunikabideetarako erakundeen egitura eta politiken zehaztapenean egiteko eraginkor eta arduratsua izatea egia bihurtzeko baino.



## Gizarte Komunikabideen Munduko XLII. Jardunaldirako mezua.

*Komunikabideak: Protagonismoaren eta zerbitzuaren arteko bidekurutzean.*

*Egia bilatu konpartitzeko. Benedikto XVI.a.*

2008

**2.** Bilakaera teknologiko oso bizkorrari esker, komunikabide honeek egundoko ahalmenak jadetsi dabez eta horrek, aldi berean, galdera eta arazo barriak eta ezezagunak aurkezten ditu. Ezin da ukatu barrien jarioari, gertaeren ezagutzari, jakitearen zabalkundeari egin dekieen ekarpena. Esate baterako, eragin erabagigarria izan dabe alfabetizazioan eta sozializazioan eta baita demokraziaren garapenean eta herrien arteko alkarrizketan be.

Errealidadea irudikatzeko atxakiagaz, bizitza pertsonal, familiar edo sozialerako eredu desitxuratuak zilegitzat joteko eta ezartzeko joerea dago. Gainera, audientzia 'audience' deitutakoa- handitzeko, batzuetan zalantza barik jotzen da haustera, arruntasunera eta indarkeriara. Eta, azkenik, beste hau be gertatu daiteke: gizarte komunikabideen bitartez herrialde txiroen eta aberatsen arteko alde teknologiko izugarria gitxitu ordez, gehitu egiten daben garapen-ereduak hedatzen eta bultzatzen dirala.

## Evangelii Gaudium (EG)

*Ebanjelioaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa.*

*Frantzisko.*

2013

**62.** Nagusi dan kulturaren, kanpokoak, berehalakoak, begi-bistakoak, arinak, azalekoak, behin-behinekoak hartzen dau lehenengo lekua. Benetakoak itxurari izten deutso lekua. Herrialde askotan, globalizazioak sustrai kulturalen hondatze bizkorra ekarri dau ekonomiari jagokonez garatuta baina etikari jagokonez makalduta dagozan beste kultura batzuen joerak sartuz. Horixe adierazo dabe Sinodo desbardineta kontinente batzuetako Gotzainek. Gizarte komunikabideen larregizko eraginaren emaitza diran jokamolde barriak azaltzen ari dira [...] Komunikazio eta entretenimenturako industrien alderdi negatiboek balio tradizionalak arriskuan jarten dabezala da horren ondorioa.

**64.** Ezelango bereizketarik egin barik, datuz beteten gaituan informazioaren gizartean bizi gara; datu guztiei maila edo balio bera emoten jake eta, azkenean, egundoko azalekotasunean jausten gara auzi moralak aurkezterakoan. Ondorioz, nahitaezkoa da kritikoki pentsatzen irakatsiko dauan eta balioetan heldutasuna jadesteko bidea eskainiko dauan hezkuntza.





## OTOITZ EGITEKO

(Lk 7, 20-23)

Joan Bateatzaileak bialdu gaitu zuri galdetзера: Zu al zara "Etortekoa" ala besteren baten zain egon behar dogu?

Une haretan, gatx, eritasun eta espiritu gaiztoak eukazan jente asko sendatu eban Jesusek, eta itsu askori ikusmena itzuli eutsen. Ondoren, mandatariei erantzun eutsen:

–Zoaze eta esan Joani ikusi eta entzun dozuena: itsuek ikusi egiten dabe, herrenak badabilz, legendunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzun egiten, hildakoak biztu egiten dira eta behartsuei barri ona emoten jake. Eta zorionekoa sinisteko oztoporik nigan aurkitzen ez dauana!

(2 Korintoarrei 3, 2-3)

Zeuek zarie nire gomendio-gutuna, neure bihotzean idatzia daroadana eta jente guztiak ezagutu eta irakurri dauana. Garbi dago, izan be, zuek Kristoren gutuna zariela, neuk idatzia, eta ez tintaz, Jainko biziaren Espirituaz baino; ez harlosatan, haragi-losatan baino, bihotzean hain zuzen be.

### ESPIRITU KOMUNIKATZAILEARI (P. WALTER MOSCHETTI)

– *Espiritu Santua,*  
gauzatu zure komunikazino-miraria  
gugan,  
zure jainkozko bizitzagazko  
lotura estuan bizi gaitezaz.  
Inprimatu Kristoren irudia gugan  
eta santutu gure bizitza  
Aitaren argi bikainaren argitan.

\* *Espiritu santua,*  
gauzatu zure komunikazino-miraria  
Eleizan,  
senidetasunean  
bat izan gaitezaz fedean eta maitasunean.  
Sendotu batasunaren lokarriak  
Jaungoikoaren herrian  
alkarte lez eraiki daiten  
errespetu eta alkarrizketa emonkorretan.

– *Espiritu Santua,*  
gauzatu zure komunikazino-miraria  
munduan,  
banatzen gaituen hesiak  
garaituta  
eta banatzen gaituen hormak laututa  
txarkeria onagaz garaitu daigun  
eta gorrotoak maitasunagaz. Amen



### KOMUNIKAZINOAREN ZORIONTASUNAK

- Zorionekoak komunikazinoa hartu-emona, alkarrizketa, bizikidetzaz, lotura dala sinisten dabenak.
- Zorionekoak, komunikazinoz ezaren mugak ezereztuz, batzuen eta besteen arteko hartu-emonaren alde jarduten dabenak.
- Zorionekoak gizakia, izaki itxi eta isolatu ez ezik, komunikazinoa eta erlazino dala iragarritz mezua zabaltzen dabenak.
- Zorionekoak Jaungoikoak gizakiari opa deusan maitasunaren, zorionaren, bizikidetzaz zuzenaren eta alkarren arteko hartu-emonaren barri ona euren bizitzakaz komunikatzen dabenak.
- Zorionekoak ideologia, kultura, erlijio desbardinetako personakaz hartu-emona daukienak, guztiengandik, aniztasunetik, bizitzarako irakaspenak ateraten dabezalako.
- Zorionekoak familian, alkartean, auzoan, urian, munduan... komunikazinoz ezari aurre egiteko jarduten dabenak.
- Zorionekoak alkar ulertzeko, alkarregaz hartu-emonaz izateko bideak zabaltzen dabezanak, hizkera orokorrak darabilezanak, bizikidetzarako eta hurkotasunerako jarraibideak jarten dabezanak.
- Zorionekoak musikaren, margoaren, interneten, alkartasunaren, zuzentasunaren bidez komunikatzen diranak eta senide bizikidetasunaren utopia egia bihurtzen dabenak.